

Jon Aldazabal Basauriren Tesi irakurketa.

2016/03/14

Martxoaren 11an, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Jon Aldazabal Basauri Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Fakultateko Auditorian. Tesiaren izenburua "Características, motivaciones y factores clave en la gestión de la innovación. Un estudio de casos" eta tesi zuzendaria Urko Lopez izan da, zuzendarikidea Jean Michel Larrasquet. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zen:

Mahaiburua: Jon Barrutia Güeñaga (Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea) Dk. Jn.

Mahaikidea: Maria José Aranguren Querejeta (Deustuko Unibertsitatea-ORKESTRA-Lehiakortasunerako Euskal Institutua) Dk. And.

Mahaikidea: Aitor Urzelai Inza (Ekintzaitzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendaria, Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna) Dk. Jn.

Mahaikidea: Emilio Angulo Navarro (Injenieri zuzendaria Hewlett Packard-en Ikerketa eta Berrikuntzan (Large format printing división)).
Universitat Politècnica de Catalunya-ko part-time irakaslea Dk. Jn.

Idazkaria: David Sanchez Bote (MIK S.coop Ikerketa Zentrua) Dk. Jn.

Tesi laburpena:

Ikerketa proiektu honen hasera puntua berrikuntza kontzeptua litzateke, kudeaketaren alorrean beste hainbat arlotan bezala (kalitatearen kudeaketa, finantza kudeaketa, marketina eta salmenten kudeaketa, etab) baliabide, herraminta eta lan dinamika zehatzez osaturiko kudeaketa diziplina zehatz baten aurrean gaude.

Egindako planteamentua kontutan hartuz eta ebaluazio modelu bat dela medio, berrikuntzaren kudeaketaren aplikazio eta honek duen inplikazioak aztertu dira hainbat erakundeen eguneroko praktikak identifikatuz. Hasera baten 46 erakundeetan aurrera eramanean den aurre ikerketa batez baliatuz (sektore eta tamainu desberdinetako erakundeak alegia) eta horren ondoren 3 erakunde zehatzen ikerketa eramanean da kasu metodologia dela medio.

Aipatutako landa lanak berrikuntzaren kudeaketan influentzia duten berezitasun, motibazio, portaera eta hainbat elementu klabe identifikatu eta zehazteko beta eman du hainbat organizaziotarako transferibilitate kriterio desberdinak zehaztuz.

Tesi irakurketaren argazki gehiago ikusteko:

<https://www.flickr.com/photos/enpresagintza/sets/72157665933817095>

